Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestako mikrodatuak. Fitxategiaren aldagaien zerrenda

1. Sarrera 1
2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak 2
2.1 Sentikortasun irizpideak 2
2.2 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak 2
2.3 Kalitatearen inguruko irizpideak 3
3. Mikrodatuen fitxategiaren erabilera 3
4. Erreferentziak 4
1. ERANSKINA. Mikrodatuen fitxategiaren aldagaien zerrenda 5

1. Sarrera

Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA) izeneko estatistika-eragiketak etengabe ematen du EAEko biztanleak hauek jarduera ekonomikoetan duten partaidetzaren arabera sailkatzeko kolektibo nagusien kopuruari eta ezaugarriei eta kolektibo horien egoera aldaketei buruzko informazio estatistikoa.

Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestako fitxategiak hedapeneko produktuak dira, mikrodatuen analisian eta tratamenduan edo erregistro- edo unitate-mailako informazioa duten fitxategietan eskarmentua duten pertsonei zuzenduta daudenak. Formatu horrek balio erantsia ematen dio erabiltzaileari; hau da, ohiko formatuko taulen, argitalpenen eta txostenen ondorioz orain arte ezin izan ditu datuak ustiatu eta aztertu, baina formatu berriari esker aukera hori izango du.

Ematen da mikrodatuen fitxategi bat zeinen unitateak pertsonak diren eta baita etxe-zenbaki bat ere (aleatorioki sortua) zeinetan dauden, hala nola etxeko kideen arteko ahaidetasun-harremana.

2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak

Inkestan hautatutako erregistroari buruz bildu diren aldagaien hautapen bat jasotzen da fitxategi honetan. Aldagaiak hautatzean, sentikortasuna eta isilpekotasuna gordetzeaz gainera kalitatea zaindu da. Hona hemen xehetasunak:

2.1 Sentikortasun irizpideak

Datu pertsonalak babesteko arautegiak bereziki babesten dituen datuei aplikatzen zaie. Izan ere, inkesta betetzen duen pertsonak berariaz eman behar du datu horiek lagatzeko baimena. Inkesta honetan pentsatzen da ez dela mota honetako aldagairik.

2.2 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak

Informatzaileekin sekretu estatistikoa betetzea da estatistika jardueraren premisa nagusienetakoa, jasotzen denez hainbat dokumentutan, hala nola Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodean 5. PRINTZIPIOAN: Estatistika-isilpekotasuna eta datuen babesa, zeinaren arabera "Informatzaileen pribatutasuna, ematen duten informazioaren isilpekotasuna, bere erabilera esklusiboa estatistika-helburuekin eta datuen segurtasuna erabat bermaturik daude".

Beraz, banakako edozein informazioaren hedapena sekretu estatistikopean jasoa era anonimoan behar da egin eta edozein pertsona jakini ez lotzeko moduan, ezta ere hedaturiko aldagaien edukiaren edo desagregazioaren bidez.

Biztanleria-lagin bat denez, fitxategiaren babes-maila handiagoa da, baina, halaz ere, behar da bermatu ez dela jakinarazten sekretu estatistikorik.

Babes hori bermatze aldera, hain zuzen, BJAko banakoen fitxategiari honako murrizketak aplikatu zaizkio:

- Ez dira, inola ere, sartzen zuzeneko identifikaziorako aldagaiak edo datu pertsonalak (NAN, izena, abizenak, helbideak, telefono-zenbakiak, etab.).

- Sarturiko gehieneko desagregazio geografikoa lurralde historikoaren araberakoa da eta, gainera, hiriburuak/gainerakoa kontuan izanda.

- Inkestaturiko pertsonaren adina bost urteko taldetan erantsi da.

- Fitxategian etxe bakoitzeko identifikazio-zenbakia ez da mantentzen hiruhileko batetik bestera; halatan, ezin da identifikatu etxe bera bi fitxategi ezberdinetan hiruhileko ezberdinetakoak.

Datuak babesteko erabili diren metodoak dira, funtsean, agregaziokoa eta datuen birkodetzekoa. Ez da erabili balioen ezabapenik ez perturbaziorik.

2.3 Kalitatearen inguruko irizpideak

Laginketa bidezko edozein inkestatan muga nagusiena da laginaren unitateetarako informazioa bakarrik dagoela, eta ez xede diren biztanle guztientzako informazioa. Inkestako laginaren diseinuak argituko du jasotako informazioarekin zein ordezkaritza maila lortu den.

BJAri dagokionez, etxebizitzen lagin bat da hura 20 eskualdetan eta lurralde historikoetako 3 hiriburuetan geruzatua. Gainera, lagin orekatua da (CUBE metodoa) aldagai hauetan: eskualde eta hiriburuetan biztanleriaren banaketak adinaren eta sexuaren arabera, familia-tamainak, enpleguko eta langabeziko administrazio-erregistroetako agerpena eta, azkenik, nazionalitatea (bi modalitatetan, espainiarra eta atzerrikoa).

Inkestaren aldagai eta gurutzatze nagusietarako eskatzen den gutxieneko adierazgarritasun-maila Lurralde Historikoarena eta hiriburuena da. Dena den, aldagai-kopurua handiak eta fitxategi honetan sartuak diren aldagaiekin lor daitekeen xehetasun-maila handiak ez dute bermatzen estatistika-esanguratsutasuna datu horien gainean egin daitezkeen ustiatze edo analisi guztiena.

Datu hauen bidez egindako azterketa eta analisien ondorioak azken erabiltzailearen erantzukizuna dira. Hori gorabehera, gurutzaketa edo desagregazio jakin bati buruzko informazioaren kalitatea zein den egiaztatzeko (http://www.eustat.es/document/datos/Errores_PRA_web_c.asp#axzz1fkuvYP6L) inkestako laginketa-erroreen taulak aztertzea gomendatzen da, baita laginketa-erroreen kalkulurako txostena ere (http://www.eustat.es/document/datos/Calculo_errores_PRA_c.pdf), azken honetan laginketa-erroreen kopuru onargarriari buruzko gomendioak ematen baitira.

3. Mikrodatuen fitxategiaren erabilera

BJAko banakoen mikrodatuen fitxategiak csv formatua du eta egituratuta dago estatistika-unitate honetarako inkestak jasotzen dituen esparru tematikoen arabera.

Datuen fitxategia dator dagokion erregistroaren diseinuarekin (Excelen), non sartzen den fitxategiaren aldagaien deskribapena. Laburturik, I. Eranskinean ematen da aldagaien zerrenda. Aldagaietako bat da pertsona bakoitzaren banakako jasotzailea, kontuan hartu beharrekoa datuen edozein tabulazio egiteko, lagin-unitateetatik biztanleria-unitateetara pasatzeko. Jasotzailea da laginaren unitate bakoitzaren pisua; alegia, biztanlerian ordezkatua den pertsona-kopurua erabilitako lagin-diseinuaren arabera.

4. Erreferentziak

Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA).

1. ERANSKINA. Mikrodatuen fitxategiaren aldagaien zerrenda

Zenb.	Aldagaia	Deskribapena
1	NUMH	Etxe-zenbakia
2	AENC	Inkestatze-urtea
3	TENC	Erreferentziako hiruhilekoa
4	TERH	Lurralde historikoa
5	MUNI	Hiriburua
6	SEXO	Sexua
7	LNAC	Jaiotza-tokia
8	EDAD	Adina
9	NACI	Nazionalitatea
10	LEST	Bukaturiko ikasketa-maila
11	ENRE	Arauturiko irakaskuntza-sistema
12	FOCU	Okupazioko formakuntza
13	SJUB	Erretiro-egoera
14	SILH	Etxeko lanetako egoera
15	EMPTP	Enplegua lanaldi partzialean
16	JRED	Lanaldi murriztuaren kausa
17	BUSQ	Enplegu-bilaketa
18	RBUSQ	Enplegu-bilaketaren zioak
19	JORB	Bilatzen den lanaldia
20	GBUSQ	Enplegua topatzeko gestioak egiten ditu
21	FBUSQ	Enplegua bilatzeko bide nagusia
22	MSBUSQ1	Enplegua topatzen zenbat hilabete
23	DISP	Erabilgarritasuna
24	PRA1	Jarduerarekiko harremana
25	PRA2	Jarduerarekiko harremana
26	PROF	Okupazio nagusia
27	RACT	Jarduera nagusia
28	SPRO	Egoera profesional nagusia
29	SECT	Sektore instituzional nagusia
30	CONTR	Kontratu-mota
31	HTRA	Lanik eginiko orduak
32	PARE	Ahaidetasuna
33	ELEV	Jasotzailea